

## EuskarAbentura piztu da!

**130 gaztetik gora eman dute izena EuskarAbentura espedizioan. Parte hartzeko epea martxoaren 18an itxi zen eta espedizionario taldea borobiltzeko Iparralde eta diasporako gazteek bigarren aukera bat izango dute izena emateko: apirilaren 8ra arte. Apirilaren 16an espedizioa osatuko dutenen izen-abizenak argitaratuko dira.**

**Bien bitartean abentura osatzen doa eta Asisko Urmeneta, Kike Amonarriz, Miren Amuriza, Odei Barroso, Jon Maya, Ximun Fusch eta Ander Lipusek, besteak beste, euren partaidetza ziurtatu dute. Babesle eta laguntzaileen zerrenda ere gero eta zabalagoa da.**

Euskal Herriko txoko desberdinetako 130 gaztetik gora eman dute izena EuskarAbenturan. Askotariko lanak bidali dituzte: rapak, idatzi historikoak, bertsoak, bideoak, kantak, marrazkiak... baita diziplina ezberdinak uztartzen dituztenak ere. Datozen egunotan EuskarAbentura elkarteko kideek proiektu guztiak ebaluatu eta parte-hartzaileen hautaketa egingo dute, Eusko Ikaskuntza bidaide. **Apirilaren 16an** argitaratuko dira **espedizioa osatuko dutenen izen-abizenak**.

**Iparraldeko eta diasporako gazteen** errealitatea kontuan hartuta malguagoa jokatuko da. Izan ere, aipatu eremuetako egoera soziolinguistikoa eta ikasturteko egutegiak oso bestelakoak dira. Beraz adin tarte zabaldu da, **2000-2003 urteen** artean jaiotakoak onartuko dira, eta **apirilaren 8ra** arteko epea izango dute **motibazio gutuna eta lana bidaltzeko**.

Espedizio ibiltari honetan parte hartuko duten gazteek Euskal Herrian zehar esperientzia anitz biziko dituzte uztailaren 1etik 31ra. Etapa bakoitzaren amaieran askotariko ekintzak egingo dira. Besteak beste **Iratxeko monastegia, Eunatoko eliza, Donemiliaga Kukulako Yusoko monastegia, Añanako Gatzagak, Albaola, Baionako katedrala eta Santimamiñe eta Ekainberriko kobazuloak** bisitatuko dira. **Orientazio eta astronomia ikastaroak** ere egingo dira eta askotariko hitzaldiak: **Asisko Urmenetak** gure lurraldearen historian sakontzeko **hitzaldi-ilustratuak** eskainiko ditu, **Euskal Herriko Laborantza Ganberak** nekazal eremuetako egoera hurbilduko du... Ez dira faltako **bertso-afariak, proiektzioak** ezta **bainuak ibai, igerileku, putzu eta itsasoan**.

Era honetan euskarAbenturalariek bertako geografia, historia, kultura eta errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko aukera izango dute. Azken honetarako lurralde desberdinetako hainbat aditu izango dituzte bidalegun: **Koldo Colomo** Nafarroan, **Beñat Garaio** eta **Ane Pedruzo** Araban, **Kike Amonarriz** Gipuzkoan eta **Eneko Gorri** Lapurdin.

Honekin batera, espedizioan zehar sormen proiektu bat garatzea proposatuko zaie gazteei; espedizioan zehar bizitakoak eta ikasitakoak jasotzea helburu duen lan bat (antzerkia, performancea... gazteek nahi dutena). Espedizioaren azken gauean "taularatu"ko dute, taldeka, amaierako opari kolektibo gisa. Horretan laguntzeko euskal kulturgintzako talentu handiko gonbidatuek lantegi ezberdinak eskainiko dizkiete: **Ander Lipusek** ahots-adierazpena emango du, **Miren Amurizak** eta **Odei Barrosok** hitza-literatur sorkuntza, **Ximun Fusch**-ek eszenografia eta **Jon Mayak** gorputz-adierazpena.

Proiektua aurrera atera ahal izateko hainbat erakunde eta taldeen laguntza ezinbestekoa izan da. Orain arte jasotako babesei **Euskaltel, Kaiku, Euskaraldia** eta **Euskal Kultur Erakundea** gehitu zaizkie azken asteetan. Aldundi eta Udal desberdinak ere bat egiten doaz poliki-poliki. Proiektua lagundu, babestu edo elkarlanean aritu nahi duen elkarte, erakunde edo norbanakoek elkartearekin harremanetan jartzeko aukera izango dute egitasmoaren webgunearen bitartez [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus).

## EuskarAbentura, ¡se encendió la chispa!

Mas de 130 jóvenes se han inscrito en la Expedición EuskarAbentura. El 18 de marzo se cerró la inscripción pero para completar el grupo expedicionario se ampliará la fecha de inscripción para los y las jóvenes de Iparralde hasta el 8 de abril. El día 16 del mismo se hará pública la lista definitiva de participantes.

Entre tanto, la Expedición va tomando forma y ya han confirmado su asistencia **Asisko Urmeneta, Kike Amonarriz, Miren Amuriza, Odei Barroso, Jon Maya, Ximun Fusch y Ander Lipus, entre otros/as**. La lista de patrocinadores y colaboradores también va en aumento.

Mas de 130 jóvenes de toda Euskal Herria han presentado su candidatura para formar parte de la Expedición EuskarAbentura. Han enviado todo tipo de trabajos: rap, redacciones históricas, bertsos, vídeos, canciones, dibujos... algunos incluso combinando más de una disciplina. En los próximos días, miembros de EuskarAbentura, junto con Eusko Ikaskuntza, evaluarán los trabajos para proceder así a la selección de participantes. **El día 16 de abril se publicará la lista de jóvenes que formaran la Expedición EuskarAbentura.**

Teniendo en cuenta tanto el calendario escolar como la situación sociolingüística **de Iparralde y de la diáspora**, se ha decidido ampliar la fecha para que jóvenes de dichos territorios que hayan nacido **entre los años 2000-2003** puedan presentar el trabajo y la carta de motivación **hasta el día 8 de abril**. Los y las jóvenes que participen en esta expedición itinerante, vivirán experiencias de lo más diversas a través de toda Euskal Herria, del 1 al 31 de julio . Al finalizar cada etapa se llevaran a cabo diferentes actividades: **visita al monasterio de Iratxe, la Iglesia de Eunete, el monasterio de Yuso de San Millan de la Cogolla, Salinas de Añana, Albaola, la Catedral de Baiona, las cuevas de Santimamiñe y Ekainberri etc**. Se realizaran también talleres de orientación y astronomía y el grupo recibirá charlas de personas expertas en diferentes disciplinas: **Asisko Urmeneta** profundizara en el conocimiento del territorio gracias a sus **charlas ilustradas, Euskal Herriko Laborantza Ganbara** acercara la situación agraria... No faltaran **bertso-afaris, proyecciones y chapuzones en ríos, piscinas y en el mar**.

De esta forma, la expedición tendrá la oportunidad de conocer la geografía, historia, cultura y realidades sociolingüísticas de los lugares que visite, para lo cual se contará con gente experta en la materia: **Koldo Colomo** en Navarra, **Beñat Garaio** y **Ane Pedruzo** en Álava, **Kike Amonarriz** en Guipúzcoa, y **Eneko Gorri** en Lapurdi.

Además, durante la expedición se desarrollará por grupos un proyecto de creatividad; teniendo en cuenta lo vivido y lo aprendido a lo largo de todo el mes, al final de la ruta cada grupo realizará una actuación a modo de regalo colectivo. Para ayudar en la consecución de este objetivo se contará con la presencia de personas de renombre en el mundo de la cultura vasca que ofrecerán talleres de diferentes disciplinas: **Ander Lipus** enseñará expresión oral, **Miren Amuriza** y **Odei Barroso** creación literaria, **Ximun Fusch** escenografía y **Jon Maya** expresión corporal.

Para poder realizar este proyecto ha sido indispensable la ayuda de diferentes grupos e instituciones. A la lista de patrocinadores se han sumado en las últimas semanas **Euskaltel, Kaiku, Euskaraldia y el Instituto Cultural Vasco** (Euskal Kultur Erakundea), y diversas Diputaciones y Ayuntamientos van, poco a poco, sumándose. Cualquier persona o entidad que quiera formar parte de este proyecto o colaborar con él puede ponerse en contacto con la asociación a través de la página web: